2011-X-07
Número **348.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Militantziarik gabe, jai daukagu

**Urriaren 7an milaka izan ziren Gasteizen elkartu ginen ELAko militanteak. Ekitaldian zehar makina bat aldiz aitortu zen gure eskubideen aldeko borroka ez dela erraza izango, ez dela inoiz erraza izan. Eta, zalantzarik gabe, militantziarik gabe lan hori ezin dela aurrera eraman. Idazkari nagusiak bere parte-hartzean aitortu zuen bezala, "zuekin zaila, baina zuek gabe ezin da, ezinezkoa da. Zuek zarete, militanteok, sindikatuak duen altxor preziatuena eta enpresetan lan zailena egin behar duzuenok. Militantziaren beharra eta organizazioa funtsezkoak dira".**

**ELAk horretan sinisten du, eta oso argi dauka noren alde dagoen: euskal langileriaren alde, inolako menpekotasunik onartu gabe. Hori da ELA, eta horretarako dago.**

**Egin dituzten erreforma ezberdinek bi helburu nagusi dute: gure defentsa kolektiboa ahultzea eta, horren bitartez, lan baldintzak okerrera eramatea. Erreforma horiek botere gehiago ematen diote patronalari. Estatu espainolean *arazoak* sortu direnean agintari politikoek patronalari prekarietate gehiago eman diote beti. Hori izan da aukera bakarra: Espainaren eredua. Horregatik, patronala eroso dago, etekinak lortzeko lan baldintzak okerrera eraman ditzakelako... baimena ematen badiogu, noski.**

**Defendatu behar ditugu soldatak, lanaldiaren murrizketa eta lan baldintzak. Hori da gure lehenbiziko ardura eta lan horretara eraman behar ditugu indarrak. Horretarako ahalegin sendo bat egin behar dugu: sindikalizazioa lortzea.**

**Ez dugu behar dugun negoziazio kolektiboa lortuko lan sindikal antolatu bat egiten ez badugu. Langile guztiek nahi dituzte lan baldintza onak, langile askok beldurra diote patronalari... guzti hori gainditzeko dago sindikatua. Guzti hori gainditzeko dago ELA.**

ELA 100 URTEZ
euskal sindikatua

### El 7 de octubre los delegados/as de ELA abarrotaron el Frontón Ogeta de Gasteiz, en una jornada sobre negociación colectiva

# AFILIACIÓN, ORGANIZACIÓN Y LUCHA

ELA eligió el 7 de octubre, Día Internacional del Trabajo Decente, para celebrar su ya habitual jornada preparatoria de la negociación colectiva de 2012. La cita de este año cobraba, además, especial relevancia tras la reforma de la negociación colectiva aprobada en julio por el Gobierno español. Una reforma que busca empobrecer las condiciones de la clase trabajadora a través de la centralización de la negociación colectiva, la imposición de los plazos de negociación, el arbitraje obligatorio y otra serie de medidas igualmente regresivas.

El acto, en el que intervinieron Mikel Noval, responsable del política social, Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva y Adolfo Muñoz, *Txiki*, secretario general, giró en torno a dos ideas fundamentales, indisolublemente unidas. La primera: si reforzamos la negociación colectiva en las empresas es posible parar la reforma; la segunda: para reforzar la negociación colectiva es indispensable sindicalizar las empresas, contar con un núcleo afiliativo importante y organizado. No hay secretos ni fórmulas mágicas. Sólo habrá acción sindical, de cualquier tipo, con afiliación y organización.



### EN NUESTRAS MANOS

Mikel Noval realizó un análisis de coyuntura en el que desmontó los argumentos tanto de patronal como de administraciones para intentar imponer rebajas laborales y recortes sociales para, después, afirmar que hay margen para la reivindicación. Noval fue más allá y explicó que la persistencia de esas políticas va a crear más paro y precariedad. Asimismo, desgranó las alternativas de ELA, entre las que destacó la necesidad de una reforma fiscal que revierta las realizadas en los últimos años, que sólo han beneficiado a las rentas del capital.

Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, por su parte, fue contundente al afirmar que está en nuestras manos parar la reforma. "Si logramos la participación de nuestra militancia, compartir objetivos y diagnósticos, informar a la gente y mejorar la correlación de fuerzas, no tengo duda de que lograremos nuestros objetivos". Cara a la negociación colectiva de 2012, adelantó que "tenemos que ir al ataque y no renunciar a lo nuestro. Vamos a luchar tanto por la cantidad de empleo como por la calidad del mismo".

El secretario general de ELA, por último, llamó a rebelarse contra la indiferencia y destacó la importancia de que el mayor número posible de militantes tome parte en la ambiciosa campaña de formación de delegados y delegadas que se está desarrollando, para compartir el diagnóstico de la situación actual y las consecuencias organizativas del mismo. "La formación es un instrumento vital porque todo está montado para el despiste individual y colectivo, para agrandar la indiferencia social y la insolidaridad. La formación enseña a comprender y ayuda a vincularse".

# BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIEK EZ DUTE ELA-REKIN BATZARTU NAHI

Irailaren 8an ELAk bilera bana eskatu zien Euskal Autonomia Erkidegoko hiru diputatu nagusiei. Bilera horien helburua ELAk bidali zien agiria –*ELA-ren proposamenak Foru-Aldundien gobernu ekintzarako*– aurkeztea zen. Agiriak proposamenak luzatzen ditu hainbat arlotan: fiskalitatea, gizartezerbitzuak, azpiegiturak eta ingurumena, gardentasuna eta parte-hartze soziala eta, azkenik, aldundietako langileen baldintzak.

Javier de Andres Arabako Diputatu nagusiak berehala onartu zuen eskaria; batzarra irailaren 26an izan zen. ELAk nabarmendu nahi duenez, bilera etsigarria izan zen. Bestalde, Astekariaren ale hau ixteko orduan ez dago ezta telefonozko erantzunik ere Bizkaiko Jose Luis Bilbao eta Gipuzkoako Martin Garitano Diputatu Nagusien aldetik. Haatik, ELA jakinaren gainean dago bilera eskaria duela hilabete iritsi zela.

Urteak dira ELAk parte hartzeko bide instituzionalizatuak eskatzen dituela, beste eragile batzuen artean klase-sindikatuen ekarpena bideratze aldera. Hori dela-eta, ELAk Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatuen jarrera salatzen du, sindikatu nagusiarekin ez baitute bilerarik egin nahi. Ukapen honek agerian uzten du dauden karguak eskatzen duen gizalege eza, eta laido egiten die bi lurraldeotan ELAn afiliatuta dauden ia 90.000 langileei.

Gizarte politiken arduradun Mikel Novalen ustez, hori ez da okerrena. "Beldur gara diputatu nagusien ukapenak beste arrazoi bat ez ote duen, hots, zerga- eta aurrekontu-politikaren oinarriren bat zalantzan jartzen duen erakunde orori entzungor egiteko erabakia. Bizi dugun unea ikusirik –krisia, aurrekontu murriztuak eta laster izango diren hauteskundeak–, uste dugu diputatu nagusiek erabaki dutela zerga- eta aurrekontu-arloan izan litekeen talka ez dela iritzi publikoan islatu behar. Inondik ere albiste txarra gizartearentzat eta demokraziarentzat".

*Ni el diputado general de Bizkaia ni el de Gipuzkoa han contestado a la solicitud de reunión de ELA.*

**Adolfo Muñoz, *Txiki*, secretario general de ELA, hizo un amplio repaso de la coyuntura que vive la clase trabajadora vasca. Reconoció que el trabajo sindical que tenemos por delante no es fácil, que nunca lo ha sido, pero recalcó que está en nuestras manos frenar la reforma de la negociacón colectiva. A continuación, un resumen de su intervención. El texto íntegro está en la página web: www.ela-sindikatua.org**

# "HAY QUE GANAR PODER SINDICAL"




Los poderes trabajan para que nuestra gente sienta que, hagamos lo que hagamos, es igual. Y así, hacer lo que les venga en gana. En ELA estamos convencidos que eso no es verdad. Por eso le damos tremenda importancia a que el punto de vista del sindicato llegue a través de los delegados/as al mundo del trabajo. Le damos importancia porque sabemos que si llegamos de manera organizada, convencemos. Hay muchos ámbitos en los que está demostrado. Y, hay muchas cosas que dependen de nosotros y nosotras. Vamos a hacer uso de una reunión con la patronal para situar la coyuntura.

## 1.- REUNIÓN CON CONFEBASK

La pasada semana mantuvimos una reunión con Confebask. Teníamos dos opciones: una reunión protocolaria o entrar al fondo. Decidimos lo segundo.

**¿QUÉ LES TRASLADAMOS?** Les explicamos por qué hablamos de saqueo con cobertura política y cómo se sitúa el sindicato para defender sus intereses y expectativas. ¿Qué les dijimos?

- **Que hay más evasión de capitales a los paraísos fiscales que nunca:** Esa evasión proviene en buena parte de los beneficios empresariales y regalos fiscales a las rentas altas y de capital que han tenido un comportamiento especulativo y de evasión. Origen de la crisis, dicho sea de paso.

- **Que la banca impone otra recapitalización con dinero público.** Salvan banqueros y hunden a pueblos enteros. Quitan el dinero del gasto social para dárselo a ellos. Para eso son los recortes. La transferencia de dinero público a bancos y cajas es escalofriante. Dinero público para tapar agujeros privados. Esa transferencia está en el origen del incremento del déficit público. El poder financiero manda. Controla la política por completo.

No se aceptaría con normalidad que fueran los banqueros los que decidieran que se llevan el dinero. Lo hacen indirectamente, mediante *gente interpuesta*. Los banqueros utilizan a los políticos para *dar apariencia* de decisión democrática. ¿A cambio de qué? De que los créditos dados por la Banca a los partidos no se les cobran.

Las empresas para financiar su actividad y el empleo se resienten. Empresarios razonables –que también los hay- dicen que el mayor problema es la imposibilidad de acceder a un crédito fácil y sin intereses de usura.

- **"La zona euro va al desastre con un plan coordinado de ajustes".** Es una frase del economista Joseph Stigiltz. Y eso es lo que está pasando. Solo la codicia o la miopía les impide ver que llevan la economía al colapso. Deprimir las economías nacionales a base de ajustes, recortes y ataque a los salarios... y decir que se defiende el empleo es imposible.

- **Que la política trabaja para sus intereses.** La política antisocial va unida a la inexistencia de participación para nosotros. Ellos tienen hilo directo. El neoliberalismo hace añicos la democracia. Hablan de participación y toman decisiones a escondidas. El poder no habla con quienes planteamos alternativas. En eso está de acuerdo toda la clase política.

**¿QUÉ RESPONDIÓ LA PATRONAL?** No discutió nada de lo que dijimos; nada en absoluto. ¿Y qué dijeron? Que hay que mandar mensajes positivos a la sociedad, mensajes de consenso.

**NUESTRA CONCLUSIÓN:** A la patronal no le importa la economía real y, visto que la política está de saldo, ha decidido aprovechar la crisis para ganar posiciones. Exige más *reformas estructurales*. Todas le parecen poco. Ellos están en eso.

## 2.- TODO ESTO NOS INTERPELA A UN SINDICALISMO Y A UNA MILITANCIA COMPROMETIDA, QUE LUCHA

La pregunta que nos tenemos que hacer es sencilla. ¿Vamos a defender lo nuestro? ELA dice que sí. A partir de esa obviedad hay que dar continuidad al trabajo sindical. La patronal pública y privada no tiene necesidad de negociar, salvo que se le obligue. ¿Por qué va a negociar quien obtiene de los gobiernos todo lo que quiere?

Estamos desarrollando una intensa campaña de formación con delegados y delegadas para compartir el diagnóstico y las consecuencias organizativas del mismo. Lo hacemos para centrar nuestro trabajo, para ilusionar a la militancia, para estar en condiciones de hacer esa acción sindical comprometida. La formación es hoy un instrumento vital porque todo está montado para el despiste individual y colectivo, para agrandar la indiferencia social y la insolidaridad. La formación da perspectiva y vincula. Enseña a comprender y ayuda a vincularse. Sí, vincula militancia para el compromiso sindical.

**La reforma de la negociación colectiva** la han hecho para debilitar al movimiento sindical. Y así tirar los salarios hacia abajo. La han hecho para obtener más precariedad.

- **23-6-11:** En Donostia criticamos el apoyo del PNV a la misma. Esta vez no ha habido ni humo... Dijeron que habían alcanzado un "gran acuerdo" que resolvía nuestros problemas. Dieron su voto favorable. Pues bien, esta vez no ha habido ni humo. Zapatero ha disuelto las Cámaras y ese presunto gran acuerdo –que nadie conoció– se ha quedado en nada. .

- **Carácter mutable:** Las normas duran muy poco. Si han cambiado la Constitución en 15 días ¿Por qué no van a cambiar dentro de cuatro meses la regulación de la Negociación Colectiva? Con la reforma laboral han hecho lo mismo, cambiarla a peor en agosto.

- **Centralización:** La estructura que recoge la reforma es la que querían CCOO y UGT. Esa reforma les permite centralizar la negociación colectiva. Y nosotros sabemos que centralización es igual a miseria. Los ámbitos estatales son un chollo para las empresas.

- **Refuerza la posición patronal:** Convenios que no vinculan, descuelgues generalizados, individualización de condiciones de trabajo, más flexibilidad, limitar los plazos de negociación para que actúen como una espada de Damocles, una estructura centralizada... Todo para presionar a los salarios a la baja.

## 3.- ¿CÓMO NOS ADAPTAMOS AL CAMBIO DE TERRENO DE JUEGO?

Ganando poder sindical, es una cuestión de poder. ¿Cómo se hace frente a la estrategia del gobiernos y patronal? Con más y mejor sindicato. Donde estemos fuertes, podremos, y donde no estamos, hay que trabajar. No hay más recetas.

Hay que dominar unas pocas cosas:

- **Informe de salarios y beneficios.** Los salarios han perdido más de 7 puntos. ¿Más moderación salarial? No, la pérdida de los salarios ha sido muy grande y es parte del problema. Conclusión: hay que defender los salarios porque es justo.

- **Si bajan los salarios, perdemos empleo.** Sí, si bajan salarios perdemos dos cosas: el salario y empleos. Si logran una caída salarial, la demanda interna caerá más y la exportación no va a absorber esa pérdida. El desempleo crecerá más. Conclusión: hay que defender salarios y jornada porque es eficaz.

- **Hay una ofensiva contra los salarios.** Basta ver el sector público y quienes tienen sujetos los incrementos retributivos a los presupuestos. Desde mayo de 2010 –si hay congelación para 2012– van a perder más de un 13% de su poder adquisitivo. Hay que responder.

- **¿Qué más hay que saber?** Que las condiciones de trabajo dependen y van a depender aun más de la fuerza sindical. ¿Y eso que es?

  **a) Que hay que sindicalizar.** Sindicalizar es afiliar y organizar a la gente afiliada. Nuestra gente necesita y quiere buenas condiciones de trabajo. Nuestra gente puede tener miedo, es muy humano, pero si la gente se organiza, si logramos reforzar lo colectivo, podemos hacernos respetar. Contra esta reforma, más poder sindical. Más sindicato.

  **b) No hay madre sin hijos.** No hay sindicalismo sin afiliación. No hay negociación colectiva sin fuerza sindical. El respeto es proporcional a la fuerza. En los Estados Unidos de América, en las empresas sindicalizadas los y las trabajadores ganan un 20% más que en las que no lo están.

  **c) ¿Dónde habrá negociación colectiva?** En los ámbitos sindicalizados. Los objetivos reivindicativos están condicionados por el nivel organizativo que seamos capaces de lograr en cada ámbito concreto.

No vamos en el mismo barco que la patronal. Preguntarles a los de Daewo, Esmaltaciones... a los de VW de Iruña, a los que la empresas les agradece los servicios prestados por carta y... si te he visto no me acuerdo. Nosotros tenemos que defender nuestros intereses. Esa es la prioridad organizativa de ELA: ser útil a la clase trabajadora vasca.

Joseba Villarreal, negoziazio kolektiboko arduraduna

## "PARTIDA IRABAZI NAHI BADUGU ERASORA JO BEHAR DUGU"




Erronkaren zailtasuna onartu arren, Joseba Villarrealek mezu baikorra luzatu nahi izan zien Ogetan bildutako delegatuei. "Negoziazio kolektiboaren erreforma geldiarazi dezakegu, horretarako tresnak ahalbidetzen dituelako. Baina hori egin ahal izateko ezinbestekoa da sindikatu indartsu bat izatea. Egin dituzten erreforma ezberdinek bi helburu nagusi dituzte: gure defentsa kolektiboa ahultzea eta, horren bitartez, lan baldintzak okerrera eramatea. Horregatik, gure kontrako erasoei aurre egiteko modurik eraginkorrena gero eta indartsuagoak izatea da. Askotan esan izan dugun bezala, ez da arrozoi kontua, indar kontua baizik. Arrazoia dugula agerikoa da; orain ahalik eta indartsuen izatea lortu behar dugu".

Kirolarekin lotutako metafora bat erabili zuen negoziazio kolektiboko arduradunak. "Partida bat erasora jokatzen baduzu, irabazi dezakezu, ala ez. Gehiago ala gutxiago kostatuko zaizu, baina beti izango duzu irabazteko aukera. Partida erasora jokatzen ez baduzu, berriz, jakin badakizu galdu egingo duzula jokatzen hasi baino lehen".

Entrenatzaile baten moduan, erabili beharreko taktika azaldu zuen. "Gure erasoko jokoa hiru ardatzen oinarritu behar dugu: afiliazioa, organizazioa eta borroka. Hiru ardatz horiek aurrera ateratzeko gai baldin bagara, hiru puntuak etxean geratuko dira. Ez izan zalantzarik. Ziurrenik ez da erraza izango, baina gure esku dago".

Mikel Noval, responsable de política social

## "TENEMOS PROPUESTAS PARA HACER OTRO TIPO DE POLÍTICAS"

Mikel Noval criticó duramente las políticas neoliberales de nuestras administraciones. En opinión del responsable de política social otro tipo de políticas muchos más justas son posibles, y destacó que ELA ya las ha hecho públicas en numerosas ocasiones.

"Es necesario un cambio total de la política fiscal. ELA tiene propuestas concretas; voy a resumirlas en dos. La primera, luchar contra el fraude fiscal existente en las rentas que no son del trabajo. Más medios, y más inspección. La segunda, reformas del IRPF, del Impuesto sobre Sociedades, del Patrimonio, y de otros impuestos.¿Para qué queremos esas reformas?. Para acabar con el trato privilegiado a las rentas del capital, y para subir los impuestos a las rentas altas, a las empresas y al capital".

"Para defender nuestra alternativa, –continuó Noval–, ELA ha puesto sobre la mesa, una vez más, sus propuestas, entre las que está la necesidad de cambiar la política fiscal. Parece un clásico, pero no nos podemos despistar. La alternativa a las políticas de ajuste incorpora necesariamente el cambio de la política fiscal".

"¿Y, qué es la presión fiscal? Presión fiscal es la parte de la riqueza de un territorio que se destina a pagar los impuestos y las cotizaciones sociales. Es decir, de cada 100 euros que se generan, cuántos euros ingresan las administraciones para financiar sus gastos".







**Manifestación multitudinaria. Una vez concluído el mitin, en torno a 3.000 delegados y delegadas recorrieron en manifestación las calles de Gasteiz, para terminar, pocos minutos después del mediodía, en la Plaza Correos, donde la responsable comarcal, Begoña Vázquez, despidió el acto agradeciendo su presencia a los allí congregados/as y animándolos a llevar nuestro mensaje y nuestras propuestas a las empresas.**

Labur Breves

### • Las condiciones del personal sanitario de las prisiones sigue sin concretarse

ELA exige a Osakidetza que presente una propuesta en relación al régimen laboral de aplicación al personal sanitario que presta sus servicios en los centros penitenciarios. Aunque la transferencia se hiciera efectiva el pasado año, todavía no existe acuerdo en aspectos como las retribuciones salariales, el acceso a la carrera profesional, la jornada o el régimen de guardias.

### • Desastre en la contratación del Hospital de Cruces

ELA-Osakidetza quiere denunciar la situación en la que se encuentran tanto las plantas de hospitalización como otros servicios del Hospital de Cruces. La desastrosa política de contratación hace que en determinados turnos de trabajo la situación sea caótica y muy preocupante. Desde la dirección del hospital se están primando en todo momento criterios economicistas y de imagen frente a las necesidades reales del hospital. No están siguiendo ningún criterio profesional de salud para denegar las constantes peticiones de contratación cuando éstas ya son muy ajustadas.

### • Acuerdo en Guascor

El comité de empresa ha firmado un acuerdo en Guascor de Zumaia. El acuerdo tiene una vigencia de tres años. Para el 2011 el incremento salarial será del IPC más 19 euros lineales y una paga no consolidable de 266 euros; en el 2012 la subida será también del IPC más 19 euros y una paga de 320 euros, de los cuales el 35% pasará al salario base; en el 2013, además del IPC más 19 euros lineales, la plantilla cobrará 384 euros, de los que el 35% irá al salario base. La jornada anual se sitúa en 1.648 horas, 49 por debajo del convenio del metal de Gipuzkoa.

### • Servisa cierra el tanatorio de Bilbao y despide a toda la plantilla

La empresa Servisa, perteneciente al Grupo Ocaso, despidió el 4 de octubre a toda la plantilla y les comunicó que cerraba el tanatorio-funeraria de Bilbao. La decisión del cierre fue adoptada sin que previamente fueran informados los representantes de los trabajadores/as que han presentado una denuncia ante la Inspección de Trabajo, exigiendo su reapertura y la readmisión de las 20 personas despedidas. En opinión de ELA, nos encontramos ante una decisión que vulnera los derechos laborales de la plantilla, trabajadores/as que para la dirección de la empresa carecen del más mínimo respeto.

Joseba Iturbe Hezkuntza Sailak inposatu dituen murrizketen inguruan mintzo da

# "GIZARTE OSOARI ERAGITEN DIETE"



*Joseba Iturbe, hirugarrena ezkerretik, urriaren 3an Legebiltzarrean egindako agerraldian*

ELA-Irakaskuntzako ordezkari Joseba Iturbe Eusko Legebiltzarrean izan zen urriaren 3an, Hezkuntza Batzordeak gonbidatuta. Agerraldiaren helburua ikasturte honi begira hezkuntzaren egoeraren inguruan ELAk egiten duen hausnarketa jakitea zen. Iturberen parte-hartze osoa web atalean eskuratu liteke.

**-Zein izan zen Hezkuntza Batzordeari zuzendu genion mezu nagusia?**

-Lehenik salaketa bat egin genuen. Izan ere, informazio eta datu asko gure kabuz eta bide ez ofizialetatik jasotakoak ziren, beste biderik izan ez dugulako. Aurten ere Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ez digu benetako jarraipen bat egin ahal izateko informazio nahikorik eman nahi izan. Ondoren, ikasturte honi begira ikusi ditugun gabezia eta arazoei heldu baino lehen, aurretik ere sufritzen ari garen egoera larriaren inguruan hausnartu genuen.

**-Zein izango litzateke egoera hori?**

-2011-12 ikasturteko murrizketak, aurreko hezkuntzaren baliabide eskasei eta 2010-11 ikasturteko murrizketa larriei gehitzen zaizkie. Aurreko ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzan 3.000 inguru ikasle gehiago izan genituen, eta ondorioz, 200 gela inguru gehiago. Egoera honi erantzuteko aurreko ikasturteetako irakasle eta gela arteko proportzioa mantenduz 350 irakasle-lanpostu gehitu beharko lituzke departamentuak, baina hazkunde erreala 80koa besterik ez zen izan, hau da, berez hazi beharko lukeena baina 270 irakasle gutxiagokoa.

Bigarren Hezkuntzan oraindik ere murrizketa larriagoa eman zen. 2010-11 ikasturtean 2009-10ean baina 2.000 inguru ikasle gehiago izan genituen, %2 ikasle-talde gehiago, baina 262 irakasle gutxiago izan ziren ikasle hauen heziketaz arduratu zirenak. Aurreko ikasturteetako ikasle eta irakasle arteko proportzioa mantenduz, ikasle igoera honi aurre egiteko 400tik gora irakasle gehiago beharko lirateke, baina Hezkuntza Sailaren erabakiz 262 irakasle gutxiago izan genituen. Beraz, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza kontutan izanda, 2010-11 ikasturtean emandako lanpostu murrizketa praktikoa 1.000 ingurukoa izan zen.

Honi ordezkapenetan emaniko murrizketak gehitu behar zaizkio. Kasu askotan astebete pasa bitarte ez da ordezkorik bidali ikastetxeetara. Argia da neurri hauek ikasleen heziketa bidean suposatzen duten traba eta ordezkapen horiek bete behar dituzten gainerako irakasleei eta langileei ezartzen dieten gainkarga, beraien lana ongi prestatzeko, behar bereziak dituztenei arreta egokia emateko edota hezkuntzaren kalitatea hobetzeko parte hartzen duten proiektuei behar bezala erantzuteko.

Eta hauei guztiei soldatetan emandako murrizketa onartezinak gehitu behar zaizkie, hezkuntzako langileek egiten duten lana gutxietsiz eta lan eta bizi baldintzak okertuz.

**-Egoera larri honen testuinguruan etorri dira aurtengo ikasturte hasierako murrizketak.**

-2011-12 ikasturtean, 7.708 ikasle gehiago ditugu EAEko ikastetxeetan. Hezkuntza Sailak komunikabideen bitartez jakinarazi digunez, 5.800 inguru Haur eta Lehen Hezkuntzan eta 1.900tik gora Bigarren Hezkuntzan. 7.708 ikasle gehiago horietatik 5.071 hezkuntza publikoan omen daude. Horri aurre egiteko 200tik gora irakasle gehiago ditugula dio Sailak. Kopuru hori oso murritza da. Gutxienez 600tik gora beharko lirateke.

Murrizketa hauek ez diete ikasle berriei bakarrik eragiten. Ikasle guztiei eragingo die, bere hezkuntza beharrei erantzuteko irakasle, hezitzaile eta langile gutxiago izango baitituzte. Hezkuntzako langile guztiei eragingo die, orain arteko lan-karga astunak are gehiago kargatuko baitzaizkie. Azken batean, guraso eta jendarte osoari eragiten die murrizketa hauek, gure seme-alabei eta egungo eta etorkizuneko herritarrei egiten zaien eraso zuzena baitira murrizketak.

**-Egoera, beraz, ez da xamurra...**

-Bai, horregatik larria iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzak hezkuntza egoera paregabean dagoela eta inolako murrizketarik ez direla egiten ari sinestarazi nahi izatea. ELAk behin eta berriro salatu du hezkuntzara bideratzen den Barne Produktu Gordina OCDEko herrialdeen bataz-bestekoa baino 1,6 puntu gutxiago dela. Hau da, gainontzeko herrialde garatuen bataz-bestekoak baino 1.000 miloi euro gutxiago jasotzen ditugu hezkuntzan.

Beste konparazio batzuk egite aldera: kopurua UNESCOk gomendatzen duena baino 1.600 miloi gutxiago, Danimarkak bideratzen duena baino 2.700 milioi gutxiago, Frantziar Estatuak baino 1.300 miloi gutxiago edo Espainiar Estatuaren bataz-bestekoa baino 500 miloi gutxiago da. Hau al da herri honetan hezkuntzari eman nahi diogun garrantzia eta baliabideak? Egoera hau izanik, oraindik ere murrizketak egitea bidezko deritzo Jaurlaritza honek?

*ELA denunció en el Parlamento de Gasteiz los graves recortes realizados en educación*

## Laburrak

**• Haurreskoletako akordioa atzerapauso nabarmena da**

ELAren iritziz, urriaren 4an Haurreskolen Partzuergoak, LABek eta STEE-EILASek sinatu zuten akordioa atzerapauso nabaria da azken hilabete luzeetan daramagun aldarrikapenetan. Partzuergoak hasieratik soldaten murrizketa bilatu du. Honez gain, aldarrikapen eta mobilizazioei bertan behera uztea lortu du.

Akordioak dio ordainsariak 2007-2009ko hitzarmenak aurreikusten dituenak izango direla. Honek, LAB eta STEE-EILASek akordioaren bezperan agertu zuten moduan, 2010 eta 2011ko igoerei uko egitea esan nahi du, hau da, orain arte gure soldatetan igo ez diguten %5,4ari uko egitea. ELAren ustez azken hilabete luzeetako borrokak ez dute horrelako akordio ustelik merezi, beren aldarrikapenak eginez kalera irten diren langileek ez dute horrelako traturik merezi.

**• Reunión del comité de Daewoo con el Gobierno vasco**

El 4 de octubre el comité de Daewoo se reunió con el departamento de industria del Gobierno vasco. Tras las últimas informaciones sobre la intención de la multinacional coreana, el comité de Daewoo quiso denunciar la tomadura de pelo a la que están sometiendo no sólo a la plantilla, sino también a las instituciones vascas y por extensión a toda la ciudadanía. A petición del comité, el Gobierno vasco puso a disposición de Daewoo la posibilidad de avalar la inversión necesaria para modernizar las instalaciones y poder mantener el empleo en Gasteiz. Tras este ofrecimiento la dirección coreana se posicionó en contra, aduciendo que su único objetivo es el despido de los 147 trabajadores/as y el posterior cierre de la planta de Gasteiz. Es evidente que la decisión del cierre se tomó en el año 2005, aunque el grupo coreano ha ocultado esta información a la plantilla.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207